

mara egokitzeko proposamenak, baina Jacques Audiard zinemagileari bakarrik eman zion baiezkua. *Dheepan* filmarekin Canneseko jaialdiko Urrezko Palma irabazi zuen 2015ean, eta hark egokitu du, berriro ere, Tomineren lana pantaila handirako, *Paris, 13th District* izenburupean. Elkarren artean loturarik gabeko hiru komiki uztartu ditu, bateko eta besteko detaile solteak hartuz.

Hawaiian Getaway izenekoa da Audiard zinemarako egokitutako hiru kontakizun horietako bat. Tominen pertsonaiak eraikitze duen moduaren erakusgarri izan daitekeen lana, hain zuzen. Orriz orri, lankideekin, pisukideekin, taiwandar jatorriko gurasoekin, ahizparekin, zein telefono bromak eginez ezagutzen duen ezezagun batekin dituen harremanen bidez aurkezten baitio Hillary Chain izeneko pertsonaia irakurleari. Gertakari, oroitzapen eta estutasun pilaketa batekin pertsonaia hezur haragizko bihurtuz.

Asiar jatorriaren lotsa

Elkarriketa batean baino gehiagotan aipatu izan du jatorri asiarraren izateagatik sentitu izan duen ezinegona. «Sentitu egin nezakeen kazetari eta kritikari asiar-amerikarrek gaia sakonago landuko zuen lanen bat egin nezan zeukaten esperantza, aldarrikapen argiak egin nitzan, arazoei aurrez aurre heltzeko, eta nola uste zuten beste edozer egitea ardua horri izkin egitea izan zitekeela. Luzaro izan dut hori buruan». Baina, azkeneko, topatu zuen irtenbide moduko bat. «Zarena izate hutsak eta zure artea sortze soilak asiar-amerikar artista bilakatzeko zaituela esatea askatzailea izan da».

Eta justu korapilo horretan loturik dirudite *Shortcomings* eleberririk grafikoko bikoteak. Zinema asiar-amerikar jaialdi batetik aterata, eta autoan hizketan doaz. «Begara, badakit ez zaizula pelikula gustatu, baina ez dakit zergatik haserretzen zaren horrela». «Denek zekitelako kaka bat zela, baina, hala ere, txalo egiten zutelako, Oaklandeko txinatar batek egina zelako. Zergatik izan behar du denak arrazari buruzko *baiezapen* indartsu klaseren bat? Zergatik ez dute, besterik gabe, ona den pelikula on bat egiten, eta listo?». «Jainkoarren, batzuetan zoratu egiten nauzu. Asiarrak izateagatik lotsatuko bazina bezala da batzuetan». «Zer? Halako pelikula baten ostean gizaki izateaz lotsatzen naiz». «Utz dezagun gaia». Eta iluntasunerantz doa autoa. «Hain nengoen umore onez...».

Auzotarren epika

Irati Majuelo

Badira noizean behin, hamarkada bakoitzean, garai aldaketa bakoitzeko, jokoaren arauak era berezian ulertu eta joko bera gainditzeko, gainjartzeko, gainezkatzen dutenak, hitzak berrekin dituen jolas eta boterea, indarra eta ahala baliatzen daki tenak tradizio literarioa beste koska batetara eramateko. Artista horietariko bat da Kae Tempest, zantalzarik gabe, ez da orain arte egindako ibilbidea ikustea besterik. Besteak beste, Ted Hughes, New Yorkeko poesia saria, jaso zuen *Antzinako berri-berriak* liburuarekin, eta orain gure eskuetara dakar Igela argitaletxeak Itziar Diez de Ultzurrunek ondutako edizio elebidunean.

Epopeia forma hartzen du Tempesten lanak honakoan: poema epiko luze bakarra da, heroi eta jainko-jainkosen ekin-tza gogoangarriak gorapatzen

dituena. Are, baditu epika klasikokoaren beste zenbait ezaugarri: *in media res* hasiera, sarreran gaiaren aurkezpena, epitetoak eta errepikapenak, inframundu-



'Antzinako berri-berriak'

Egilea: Kae Tempest. Itzultzailea: Itziar Diez de Ultzurrun. Argitaletxea: Igela.

ra jaitsiera, besteak beste. Kontua da, gaur-gaurko jainko eta jainkosez ari dela, XXI. mendeko Londresko auzoei buruz, kontua da musatzat gaituen entzule horiek, irakurle horiek ari dela inbokatzeko Tempest, gure inguru hurbileko heroi modernoak suma ditzagun.

Eguneroko ekintza xumeetan ari diren herriarregan ikusten ditu ekintza jainkotiarak idazleak, senarraren desleialtasuna jasaten duen emakumearen egozarraren, aitaren maitasunik eza lagun-minarenean aurkitzen duen gaztearengan, komikigile izan nahi duen gaztearen anbizioan, beldurrari adorez erantzuten dion neskaren begietan. Azken finean, halakoak ziren ere Grezia klasikoko jainko-jainkoesak, lurtarrak, imperfektuak, hala gidatzen zituen gure antzera amorrak, desengainuak, samurtasunak. Igar daiteke idazleak pisu handia jartzen duela maitasunaren funtzio osatzailean, zenbaitetan idealizatu egia akaso, epikaren logikak desmuntatzen dituen lan honetan. Hala ere, harreman akastunak dira azalera-tzen dituen guztiak, errealek, eta

egia da maitasunak forma desberdinak hartzen dituela horietan. Epopeia moderno bat, beraz, maitaleei, damutuei, kinkiei, kamarerrei; gorazarre eder bat auzotarrei, horixe da *Antzinako berri-berriak*.

«Poema hau entzun ahala idatzi nuen», esan zuen Tempestek, eta hala nabari da erritmoan, errimetan, isiluneetan, spoken *word*-ean ohiko denez, oholtza gainean performatzeko idatzia baita poema hau. Erritmoa, bereziki, Londreseko taberna zuloetako inframundura jaitsi ahala bi-ziagotzen dena liburuako klimax dramatikoarekin batera, zoragarria da. Itzulpenak ere ongi jasotzen du kadentzia oro har, eta esango nuke une gorenera heltzen dela aipaturiko pasarteetan, errima ere era nabarmenagoan baliatzen duenean. Pena da akaso gainerakoan errimak izan deza-keen indarra apur bat galtzea euskarazko bertsoan, baina konplexua da oso horrelako itzulpen batean une oro fidel mantentzea edukari, formari, erritmoari, errimari. Esan gabe doa, lan handia egin duela Diez de Ultzurrunek.

Hirutik hiru



HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Haur literaturako liburu batek eduki dezakeen aberastasun handiena irakurketa maila desberdinak eskaintzeko ahalmena da.

Lehenik eta behin, istorio hunkigarri bat eskaini behar du liburuak, haurrek gozatzeko eran emana. Haur liburu batek ez du ezertarako balio, haurrari balio ez badio.

Hurrengo maila batean, haurrek hausnartzeko aukera eskaini behar du, kontakizunaren gertaerak lagunduta. Hemen ere narrazioak errespetuz hartu behar du haurra, tontotzat hartu gabe, hausnarketa eta lezioa ematea desberdin direla jakinda.

Hirugarrenik esperientzia estetiko asegarrak eskaini behar dio liburuak, testuak eta ilustrazioek erakitzen duten unibertsoaren bidez.

Bada, nire ustez, hiru puntu hauek aski eta soberan betetzen ditu *Opari ezberdin bat* albu-mak.



'Opari ezberdin bat'

Idazlea: Marta Azcona. Ilustratzailea: Rosa Osuna. Itzultzailea: Eva Linazasoro. Argitaletxea: Pamiela.

Kontakizuna adiskidetasun harreman batean gertatzen da: Martxeloren urtebetetze eguna da, eta Tristan askaritarra gonbidatzen du. Egoera berezia da, eta Tristanek are bereziago bihurtzen du, opari gisa zer eta oihala zati bat ematen dihonean. Hasieratik bukaerara giro atseginean jarduten dute bi haurrek eta, Martxelori harridura pasatzen zaionean, euren kontutan jarraitzen dute, irribarrea une batez ere galdu gabe.

Euren kontutan, eta oihala ekintzen erdigunean jarrita, egoera eta zailtasunak gainditzeko oihala baliabide ezin egokiagoa bihurtuta.

Une honetan komeni da testuaren eta irudiaren erabilera nolakoa den azaltzea. Irudiak nagusitasun ia osoa dute. Gehi-netan orri bikoa hartzen dute. Ilustrazioek sotiltasunera jotzen dute; espazioa abstrakzioetik hurbil dabil, pertsonaien forma eta itxura, eta gainerako objektu, animalia eta landareak ere marra hautsi gutxietan eginda daude, haurren marrazketara hurbilduta.

Testua letra mekanografiatuz idatzita dago. Badira testurik gabeko orrialde dezente, eta badira bi-hiru lerrokoak. Esaldiak deskriptiboak dira, hizkuntza erra-

zean, eta errepikapenezko egitura batean txertatuta daude. Gainera, egitura errepikatu honetan gako-esaldien konklusioa irudien bidez ematen da.

Honi esker Martxelok eta Tristanek bizitzen dituzten egoerak nolakoak diren modu grafiko ulerterrazean ezagutzen ditu irakurleak. Eta lasai goza dezake gertakari nagusiez ez ezik, beste-lako maila batean eskaintzen direnez ere.

Izan ere lau pertsonaien bidez kontaktuen zaigu istorioa: Martxelok eta Tristan aktore nagusiak dira, eta euren jarduna jarraitzea da irakurlearen zeregin nagusia. Baina aktore eta elementu gehiago ere badaude. Martxelorekin bizi den zakurra eurei segika dabil kontakizunak irauten duen bitartean. Zakur izengabea, gel-dirik ez dagoena eta bigarren mailako gertakari autonomoei fokua jartzen diena. Batik bat laugarren pertsonaia hor dabilela salatzen. Zeren bada ezkutuka dabilen haur bat, erdizka ageri dena, eta, ustekabean, kontakizunaren amaiera borobiltzen duena.

Laburbilduz, hona adiskidetasunaz, jolas sinbolikoaz, eta oparitzen diren jostailuei buruzko hausnarketaz ari den album ilustratu bat.